HIRI-IBILBIDEEN ANALISIA

5.2. PRAKTIKA

5.2. praktika ere taldeka izango da.

Aurreko ariketetan landutako herri bereko hiri-ibilbideak edo sekuentzia urbanoak ikertu egin beharko dira.

4 plano din-A1 formatuan egin beharko dira, 1:2.000 eskala gomendatzen delarik (herriaren arabera alda daiteke).

	NOLA EGIN	ZER EGIN PLANO BAKOITZEAN
4 PLANO	- Eskala: **1:2.000** - Tamaina: **A-1** - Formatoak: **Cd**an* edo e-postaz (PDF, 300 d.p.i.), irakasleak ez badu kontrakoa esaten	- Ibilbide bakoitza plano batean ikertu eta adierazi behar da (planta, eta ebaketa esanguratsuak –eskala 1:500era handitu daitezke-; argazkiak edo/eta marrazkiak gehi daitezke) - Laugarren planoan hiru ibilbideak batera adieraziko dira. - Plano guztietan datu interesgarriak gehitu (eraikinen eta kaleen izenak, zabalerak, ibilbideen luzerak, puntu estrategikoak nondik ikuspegi interesgarriak dauden…)

Ibilbide motak hiru izango dira:

- **Kultura-ibilbidea** (eraikinak kolore moreaz; espazio eraikigabeak kolore larrosaz). Bertan kulturarekin erlazionatutako eraikinak eta espazio publikoak zehaztuko dira (museoak, kulturetxeak, musikaguneak, monumentuak…), haien arteko ibilbide bat sortuz.

- **Kirol-ibilbidea** (eraikinak kolore urdin ilunaz; espazio eraikigabea kolore urdin argiaz). Bertan kirolekin erlazionatutako eraikinak eta espazio publikoak zehaztuko dira (polikiroldegiak, frontoiak, korrika egiteko guneak…), haien arteko ibilbide bat sortuz.

- **Ibilbide geldoa** (eraikinak kolore laranjaz; espazio eraikigabea kolore horiaz). Bertan astiro doazen hiritarrek (zaharrek eta umeek, bereziki) erabiltzen dituzten eraikinak eta espazio publikoak zehaztuko dira (eskolak, egoitzak, anbulatorioak…), haien arteko ibilbide bat sortuz.

Eskatzen denaren adibidea webgune honetan duzue:
http://212.145.146.10/ejercicio/concursos/concursos_ocam/060615_itinerarios/060615_iu_doc.html
Begiratu itzazue “PLANOS DE LOS ITINERARIOS” kapituluko pdf-ak.

* EMATE-DATA: Martxoaren 18an (klasea 19an dutenek e-postaz eman beharko dute, irakasleak kontrakoa ez badio). Azalpen publikoa egingo da apirilaren 15 eta 16an, 5.3. ariketarekin batera.